

Gizarte inklusiboago baterantz Elkar Ekin Lanean programarekin

Goieki Goierriko Garapen Agentziak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzari esker eta eskualdeko hainbat eragilerekin elkarlanean, Elkar Ekin Lanean programa eraman du aurrera 2023-2024ko ikasturtean.

Goieki Goierriko Garapen Agentziak, 2023-2024ko ikasturtean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzari esker eta Goierri (Gipuzkoa) eskualdeko hainbat eragilerekin elkarlanean aurrera eraman duen Elkar Ekin Lanean programak gizarte inklusiboago bat lortzeko ahaleginez, lankidetzaz eta aurrerapenez betetako zikloa itxi du.

Horrela, Elkar Ekin Lanean programari esker, 2023-2024ko ikasturtean, gehien behar dutenei aukera berriak sortzeko lan egin da, beren egoera hobetzeko eta integrazio soziolaborala errazteko behar dituzten tresnak, prestakuntza eta laguntzak eskainiz.

ELKAR EGIN LANEAN PROGRAMA

Elkar Ekin Lanean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapen, Turismo eta Landa Ingurune Departamentuak (%85) eta Goierriko udalek (%15) bultzatutako eta finantzatutako ekinbidea da. Bazterketa arriskuan dauden langabeen laneratzea eta gizarteratzea sustatzeko helburua duen enplegu programa bat da. Eskualdeko gizarteratze eta laneratze sarean parte hartzen duten erakundeek —Goieki, Caritas, Gurutze Gorria, Sarea Fundazioa, Prospektiker, Ede Fundazioa, Goierri Eskola, Biok Zerbitzuak eta eskualdeko gizarte-langileen ordezkari bat— egindako elkarlanaren emaitza da. Kolektibo kalteberei prestakuntza, enpresa-praktikak, laguntza eta orientazioa ematea helburu duena, lan-merkatuan sar daitezten.

PRESTAKUNTZA IBILBIDE DESBERDINAK

Gizarteratzeko eta laneratze ibilbide integratuak dira, pertsonari egokituak: enplegurako prestakuntza, Goierriko gizarte eta eskualde kohesioa geldiarazteko eta kolektibo horri lan-munduan sartzen laguntzeko helburua duena.

2023-2024ko ikasturtean hainbat prestakuntza-ibilbide egin



PRESTAKUNTZA. Ikasleek etxeko laguntzari eta familia-elikadurari buruzko prestakuntza jaso dute, eta mendekotasunen bat dutenen etxeko higienerari eta osasun-arretari buruz ikasi dute. GOIERRI

dira. Halaber, bi modulu Fraisoro Eskolak emandako lorategiak eta berdeguneak instalatzeko oinarrizko eragiketak, Gurutze Gorriak eraikin eta lokaletako gainazalak eta altzariak garbitzeko prestakuntza, Sarea Fundazioak ehun eta larruzko artikulua egin eta konpontzea eta Gurutze Gorriak mendeko pertsonari arreta soziosanitaria etxean ematea. Horrez gain, ibilbide bakoitzean gaitasun soziolaboralak landu dira Emaktiva erakundearen eskutik.

Lehen aipatu bezala, abenduaren 4an, proiektuko azken prestakuntza-ibilbidearekin amaitu zen Elkar Ekin Lanean 2023-2024ko hitzarmena. Ibilbide hau bigarren

Informazio gehiago bildu nahi izanez gero, bisitatu webgune hau: www.goierri.eus

modulari dagokio: Higienea eta osasun-arreta etxean, Mendeko pertsonari arreta soziosanitaria etxean ematea prestakuntzaren barruan.

GOIERRI ZAITZEN

Mendekotasunen bat duten pertsonentzako arreta soziosanitarioko azken prestakuntza-ibilbide honetan oinarrituta, hiru moduluetan banatuta dago eta duela gutxi bigarren modulu osatu da. Ibilbide horretan zehar, ikasleek etxeko laguntzari eta familia-elikadurari buruzko prestakuntza jaso dute, eta menu osasungarri bat egiteko, prestatzeko eta, ondoren, dastatzeko aukera izan dute.

Gainera, mendekotasuna duten pertsonen etxeko higienerari eta osasun-arretari buruz ikasi dute, eta trebetasunak eskuratu dituzte, besteak beste, pertsona bat ohetik altzatzea, garabia erabiltzea eta gurpil-aulkian jartzea.

Ikastaroa, azterketa kualifikatzaile batekin amaitu zen, eta horren ondorioz, honako ibilbide honetan aurrera egin ahal izango dute: hirugarren modulua, Arreta eta laguntza psiko-soziala etxean, 2025eko urtarrilaren 20an hasiko dena. Modulu hori osatzean, ikasleek praktikak egin ahal izango dituzte, eta, horri esker, ikastaroa amaitu ahal izango dute, mendekotasuna duten pertsonari arreta soziosanitaria etxean emateko zuztagiri profesionala eskuratuz eta, hortaz, lan-mundurako prest egin ahal izango dira.

ETORKIZUNERAKO URRATS BAT

Amaitzeko eta Elkar Ekin Lanean 2023-2024 hitzarmenaren ondorio gisa, Goierriko eskualdean 189 pertsona ibilbide ezberdinetan parte hartu dute. Horietatik 51k lan esperientzia bat bizitzeko aukera izan dute, eta 50ek lan kontratu bat lortzea lortu dute. Laburbilduz, 79 pertsonak lortu dute lan munduan sartzea, euren etorkizun profesionalerantz pauso handia emanez.

Hitzarmena amaitzen bada ere, lan honen eraginak aurrera jarraitzen du, eta inklusioa eta aukera-berdintasuna bultzatzen jarraituko duen laguntza-sare bat sortzen jarraituko du hurrengo 2025-2026 Elkar Ekin Lanean programaren bidez. Izan ere, prestakuntza-ibilbideetan zenbait aldaketa egingo dira, eta sukaldaritzako oinarrizko eragiketen formakuntza eta oinarrizko gaitasunen 1. eta 2. mailako prestakuntza-ibilbideak egongo dira.

Orain arte lortu dutena gizarte justu eta solidarioago baterako bidearen hasiera baino ez da. Egindako lanak aurrera jarraitzen du, erronka berriekin eta betetzeko ametsekin. ●